



Egilea / El autor

Joseba Gabilondo (1963) Urretxun jaio zen, familia osoa eta etxean hitz egindako euskalkia Bergarakoa bada ere. Zortzi urte zituelarik Errenteriarra egin zuen mudantza familiak eta hamazortzi urterekin Donostiara. Abaila harturik, ez da harrez gero gure idazlea geratu. Gasteizen amaitu zituen euskal filologia ikasketak Jon Juaristi eta Koldo Mitxelenaekin (1987) eta University of California, San Diego doktradutza burutu zuen Hollywood garaikideari buruzko tesia idatziz (1991).

Azkenik, hispanista bezala egokitu da eta harrez gero literatura eta kultura hispaniarrei (Espainia eta Latinoamerika) buruz irakatsi du honako unibertsitateetan: Duke University (North Carolina), Bryn Mawr College (Pennsylvania), University of Florida, University of Nevada, Reno eta Michigan State University.

Bidaiatzea eta kultura berriak ezagutzea pasio bihurtu dituen idazle ibiltari honek, 1992an argitaratu zuen AEB-etako kronika bat: *Kaliforniatik bihotzez* eta, harrez gero, literatura euskaldun garaikideari buruzko beste lan akademiko bat: *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak* (2006). *Apokalipsia guztioi erakutsia* (Erein, 2009) liburuarekin irabazi zuen *Erein narratiba* saria.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Globalizazioak eta Erdi Aro berria:**

Diferentzien itzuleraz

Egilea / Autor: **Joseba Gabilondo**

Saila / Colección: Saiopaperak-Pentsamentua eta gizartea, 16

ISBN / EAN: 978-84-9109-152-3

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA inkluido)

Orri kopurua / N° páginas: 240

Formatua / Formato: 14 x 22,5 cm



Lana / La obra

Neoliberalismoaren aurkako borrokan ezkerak azken urteotan izan dituen porrotak abiapuntu bezala hartuz, liburu honek beste bide, alternatiba eta pentsakera desberdinak esploratzen ditu, zentzurik zabalenean, *im-passe* ezkertiar horretatik ateratzeko. Hiru hipotesi elkar lotzen ditu horretarako saio honek. Lehenik, ez dagoela globalizazio bakar bat, baizik eta globalizazioak daudela, lekuan lekuko globalizazio anitzak, eta bertatik globalizazioa esplikatzen zailtasunak. Bigarrenik, globalizazioak historikoki esplikatzen biderik egokiena Erdi Aroa jotzea dela, bertan bi momentu bereziz: lehena, inperio erromatarren erortzeak sortu zuen momentu barbaro eta anitza, eta, bigarrena, geroago feudalismo aristokratiko eta elitistari leku egin ziona: egun, bi Erdi Aro horien atean geundeko eta geroaldi gertuan erabakiko da bietatik zeinek indar hartuko duen. Hirugarrenik eta azkenik, geroa ezin dugula era bateratu batean pentsatu, Hegelengandik Fukuyamarengana egin den bezala, ez baitago unibertsaltasunik geroan; ondorioz, Iraultzaren kontzeptua (Marx) edota politika bakarraren ideia (Nazio Batuak, Gobernu globala...) abandonatu behar ditugu, eta aristokrazia feudalaren eta heterogeneotasun barbaroaren arteko talkan sortuko den historia eta politika futuroa garatu eta pentsatu behar ditugu, bateratze edo unibertsalizazio proiektu oro abandonatuz. Liburuak horretarako, sexua, desira, filosofia, sukaldaritza, EBeko krisia, populismoa, blockbuster filmak, Lenin, ekologiaren ezintasuna, eliteen ideologiaren arrakasta, salbuespen estatua, errealitate showak, konfuzionismo kapitalista, kontsumoaren dinamika eta ezkontza homosexualak aztertzen ditu, besteren artean, beti ere oin bat Euskal Herrian.